



**Bake**  
prozesua  
indartzeko  
**Foro**  
Soziala

**Foro**  
Social  
para impulsar  
el proceso  
**de Paz**

**Social**  
**Forum**  
to promote the  
**Peace**  
process

# Foro Sozialaren Sintesia eta Ondorioak

Gernika, 2016ko urtarrilaren 30a

## Gernikan buruturiko Foro Sozialaren sintesia

Urtarrilaren 30ean, Gandhiren heriotzaren urteurrenean Bakearen Foro Soziala Gernikan bildu izanaren sinbolismoa azpimarratuz hartu zuten hitza bertara gonbidatutako adituek. Mendebaldea erradikalismo biolentuari irtenbide eraikitzaileak proposatzeko gose dagoenean, "Europar bertan dagoen azken gatazkaren" armagabetzeak errekonozimendu eta babes handiagoa merezi lukeela Europako instituzioen aldetik, bai eta bereziki Espainiar estatuaren aldetik ere, gogorarazi zuten Bakearen Foro Sozialean parte hartu zuten hizlariek.

Bake prozesu bakoitzak bere ezaugarri propioak dituela gogorarazi zuten hizlari guztiek, eta hein horretan prozesu bakoitzak "bere bide propioa egin beharra baitu, inoren kopiarik egin gabe". Horretarako ezinbestekoa da gatazkaren amaieraren irudi argi bat izatea eta gatazkaren amaiera gauza dadin gogor lan egin beharra dago. Era berean, euskal bake prozesuak baduela nazioarteari zer erakutsia azpimarratu zuten, munduko beste prozesu batzuentzat ekarpen interesgarria eta aberasgarria dela iritzita.

Véronique Dudouetek azpimarratu zuen moduan, "armagabetze prozesuak ez lirateke inolaz ere etsaiaren amore ematearekin identifikatu behar", ez eta ezkutuko akordioekin ere. Armagabetze prozesuak mekanismo boteretsuak dira gatazka konfrontazio armatutik politikaren adierazpide baketsura bideratzeko. Honetan datza hain zuzen ere bere aburuz "politikaren desmilitarizazioa".

Prozesuko aktoreei dagokionez, parte inplikatu ez eta nazioarteko erakundeez gain, gizarte zibilaren garrantzia azpimarratu zuten hizlari guztiek, izan ere, halako prozesuetan gizarte zibilaren rola anitza da: informatu, lagundu, lekuko izan, bultzatu eta indar eginez, aldeak presionatu behetik-gorako elkarrizketa guneak ireki daitezten. Gatazkaren irtenbidea "hemen" eta "zuen esku", euskal gizartearen, hau da, "gizarte zibila, partidu politiko eta erakundeen" esku dagoela nabarmendu zuten guztiek.

Jarraian jasotzen ditugu adituen ekarpenak, egitarauan izan zuten parte hartze ordena errespetatuz.

## Lehenengo Mahaiko Ildo Nagusiak

Carlos Alberto Ruiz Socha (Kolonbiako bake prozesua, La Habanako negoziatioetan aholkularia)  
*"Gizarte zibilak abian jarritako mekanismoen eta prozesuaren itzulezintasunaren berme izan behar du"*

Estatua eta FARCen (Kolonbiako Indar armatu iraultzaileak) bake elkarriketen abiapuntua Errepublikako egungo presidentea den Santosek ordu arte estatuak irmoki ukatzen zuen gatazka armatua egon bazegoenaren aitortza izan zela gogoratu du Carlos Alberto Ruiz Sochak. Ondotik, 2012ko otsaila eta abuztua bitartean burututako isilpeko elkarriketek "gatazkaren amaiera eta bake iraunkor baten eraikuntza" helburu zuen egutegi batean gauzatu ziren. Gaurdaino, aurrerapauso nagusiak lau auzi nagusiren inguruan eman dira: nekazal lurren antolaketa, parte hartze politikoa, legez kanpoko drogak eta biktimak. Egiari, justiziari, "krimen larrien" gaineko erantzukizunari (tartean, "gizateriaren aurkako krimenak" ere badira) eta erreparazioari lotutako biziki arantzatsua den puntuaren inguruan akordio bat burutu zuten 2014ean.

"Gatazkaren amaiera" izan zuen ere mintzagai. Gai zaila, ez bairik gabe, bi aldetako su-eten behin betikoarekin batera doan heinean (FARCEk alde bakarreko suetena aldarrikatu zuten 2014ean, "bakearen fronte" herrikoi batek egiaztatu zuena). Bi aldetako su eten behin betikoarekin batera, armagabetzea, FARCEko tropen bateratzea eta gerrilla bizitza zibilera itzultzea eta presoaren estatus juridikoa (1300 FARCEko preso, terroristatzat jotzen direnak salbuespenak alde batera utzita) gauzatu behar dira. Horrez gain, Estatuaren eta talde paramilitarren biolentziaren amaieraren auzia dago ("gerra zikina"), zeinaren inguruan oinarritzakoa ere egiteke dagoen oraindik ere Ruiz Socharen arabera. Hala eta guzti ere, "deseskalatze" keinuak gertatu dira, hogeiren bat konta daitezke FARCen aldetik, gobernuak FARCen aukako bonbardatzeak etetearekin batera. NBE eta CELAk egiaztatzaile lanak egiteko ardura hartu dute. Ruiz Socharen esanetan "gizarte zibil anitzaren inplikazioa ezinbestekoa da, abian jarritako mekanismoen bermea izan behar du eta erreleboa hartu".

Horren baitan datza, bere aburuz "prozesuaren itzulezintasuna", eta hori bera gerta daiteke Euskal Herrian. Gobernu kolonbiarrak ELN (Nazio askatze armada)rekin izandako isilpeko elkarriketen berri eman beharra duela lehen bait lehen gehitu zuen, hiru partearen arteko akordioa gauza dadin. Hori gabe ez da izango bake iraunkor itzulezinezkorik.

Alberto Spektorowsky. ICG (Nazioarteko Harremanetarako Taldea)ren kidea.

Alberto Spektorowskyk abian den bake prozesuak amaiera duin, zorioneko bat izan behar duela esanez hasi du bere mintzaldia. Hori lortzeko bidean gogor lan egin beharra dago. Bake prozesu guztiak ez baitira arrakastatsuak, 'spoilerrek' prozesua porrotera eraman dezakete, eta horren adibide Israel eta Palestinako kasua ekarri du. Hori horrela, gogorarazi du politikariek bake prozesu batean sartzera euren etorkizun politikoa dutela jokoan: bake prozesua bide onetik ateratzeko arriskuen aurrean, presioak jasateko ausardia eta sendotasuna behar dute lider politikoek.

ICGko kidearen esanetan, justizia trantsizionala funtsezkoa da preso politikoen gaia lantzeko. Presoak hurbiltzea eta gaixorik daudenak askatzea giza eskubideen baitako auzia dela gogorarazi du. Parteetako baten aldetik biolentzia amaitu arren estatuaren biolentziak bere hartan dirauela jakitun izanik ere, bere aburuz ez litzateke gomendagarria biolentzia estruktural hori modu bortitzean "tratatzea".

Politikaren baitan, bere esanetan pentsamendua "kolonizatzen" ahalegindu beharra dago, hau da, bakerako, elkarrizketarako aurreikuspenak sortu beharra dago. Beste bake prozesu batzuekin alderatuta, Euskal Herrian biolentziarik gabe hitz egin ahal izatea itzelezko aurrerapena da, nahiz eta estatuaren biolentzia estrukturalak bere hartan jarraitzen duen. Nazioarteko komunitatearengan ez da konfiantza handiegirik izan behar bere aburuz. *"Bakarrik zaudete"*, gogorarazi zuen Spektorowskyk. *"Gatazka hemen, barrutik, konpondu beharra dago"*.

## BIGARREN MAHAIKO ILDO NAGUSIAK

### Véronique Dudouet. Berghof Fundazioaren kidea

Véronique Dudouetentzat, Espainiar eta Frantziar estatuen eta ETaren arteko gatazka armatuaren ondorioak bideratzeko euskal klase politikoak eta euskal gizarteak hautatuko bidearen sinbolo garrantzitsua da Bakearen foro soziala. Izaera proaktiboa duen eta berrikuntzaz beteriko bidea da, Espainiar estatuaren errepresio etengabea eta elkarrizketa ukoaren gainetik ere. Gatazka bakoitzak ezaugarri berezkoak dituen arren, beste gatazkek izandako erronka eta arrakastaren azterketa aintzat harturik, armagabetze prozesuetan funtsezko izan diren 5 elementu aipatu ditu:

- Gardentasuna, aldean arteko konfiantza eraikitzeke ezinbestekoa. Informazio sinesgarria du oinarri.
- Babes eta segurtasun bermeak alde guztientzako, armagabetzea arriskuz kanpo gauzatu ahal izateko.
- Berme politikoak eta borondate politikoak. Armagabetzea ez da ariketa tekniko hutsa. Armagabetzea "politikaren desmilitarizazioa" da, talde armatuek aldaketa politiko edo soziala lortzeko borroka bide baketsuen bidez soilik gauzatzeko duten erabakia eta konpromisoa agerian uzten baitute. Jauzi hau itzulezina izateko, ordea, estatuak gatazkaren oinarriak aztertzeke konpromisoa ezinbestekoa da
- Gainbegiratzea eta kontrola, hirugarren alde inpartzial eta independenteen esku.
- Jabetza, inplikazio zentzuan: armagabetzeak eraginkorragoak dira borondatezkoak direnean.

### Kristian Herbolzheimer. Conciliation Resources GKEren Kolonbiako eta Filipinetako proiektuak

*"Euskal Herrian gizarte zibilak zailak diren elkarrizketetarako baldintzak sortu, mugak hautsi eta proposamenak egin behar ditu"*, esan zuen Kristian Herbolzheimerek. Inongo bake prozesu ez dela guztiz amaitu azpimarratu zuen Herbolzheimerek, ez Hego Afrikan, ez eta Irlandan ere, Ostiral Santuko akordioetatik 17 urte igaro direnean. Azken bake prozesua 2014ean Filipinetan sinatutakoa da, Mindanaoko irlako gerrillariak eta estatuaren artean 17 urteko negoziazioen ondotik etorri dena. Bere hitzetan "itxaropenaren itsasargia" bilakatu den Kolonbiako prozesua litzateke hurrengoa.

Zer adierazten digute bi prozesuok? Bi hitzetan, gizarte zibilak gaina hartzera ausartu behar duela. Filipinetakoa dugu horren adibide: autodeterminazioaren aldeko gerrilla "irtenbideak politikoak behar zuenaren" konbentzimendua azkenerako barneratu zuen armadak lau hilabetetan garaitu zuen. Kasu honetan, urteetako biolentziaren ondorioz leku aldatzeak jasandako biztanleria bere kabuz egiaztatze mekanismoak sortzeko gai izan da, suetenaren bilakaeraren jarraipenaz arduratzen den inongo egituratan formalki aintzat hartua izan baino askoz lehenago. Gaur egun 2014ko bake akordioetan finkatutako Trantsizio kontseiluko parte da gizarte zibila.

Kolonbiari dagokionez ere, behin bi aldetako suetena sinatuta (FARC-estatu), bakearen eraikuntzan gizarte zibilak parte hartzea aurreikusten da. Negoziaketa eta bake prozesua bereizi behar direla gogorarazten du Kristian Herbolzheimerek. La Habanan biktimen paperaren inguruan egindako lana ekartzen du mahai gainera, "negoziazioen erdigunean" kokatu baitzituzten (biktimen bost delegazio gonbidatu zituzten), bai eta inpunitateari buruz, justizia trantsizionalari eta memoriari buruz bertan egindako ekarpenak ere. FARCEk gizarte zibila euren alde bakarreko suetena egiaztatzerako gonbidatu zutela oroitarazi du. Eta azpimarratu du ere "gerrak bai eta negoziaketaren eredu klasikoak mugak dituzte, prozesu guztiak teknikoak baino politikoagoak diren heinean".

Euskal Herrian bizi den paralisi egoeraren aurrean, adituaren hitzetan gizarte zibilak "aurrerapauso formalen gabeziari aurre egin behar dio, zailak diren elkarrizketetarako baldintzak sortu, mugak hautsi eta proposamenak egin behar ditu aldeek onar dezaten". "Nazioarteko erreferenteak baliagarriak dira, baina bakoitzak bere metodo propioa bilatu behar du" ondorioztatu du Kristian Herbolzheimerek.

#### Brian Currin ICG (Nazioarteko Harremanetarako Taldea)ren arduraduna

Brian Currinek paradoxa baten konstataziotik abiatzen du bere hitzartzea: biolentziarik eza bada bake prozesu baten arrakastaren giltza, Euskal Herriko bake prozesua arrakastatsuenen artean legoke, eta halere porrota kontsideratzen da. Porrota, estatuaren parte hartze ezaren aldetik, baina baita arrakasta ere, alde bakarretik biolentzia eten delako ETak gatazka armatua amaitzearekin. Arrakasta eta porrotaren auzia kokatu beharra dago, ordea. Hego Afrikan esaterako, bake prozesuaren azken bizpahiru urteetan 300 hildako zeuden astero, eta halere, prozesu arrakastatsutzat jotzen da. Antzera gertatzen da Ipar Irlandako kasuan. Euskal Herriaren kasuan estatuaren parte hartzea beharrezkoa den aldiro, porrotaz hitz egiten da, eta aldiz arrakasta aipatzen da biolentzia ezari dagokionez -ETak emandako pausua medio- eta gizarte zibilak izan duen paperari dagokionez. Eten honen aurrean, galdera nagusi bat ekarri du Currinek: nola askatu Espainiar estatuaren gatibu politiko bilakatu den armagabetze prozesu hau?

Bi aukera daude: Espainiar gobernuak askatzeko borondatea izan arte itxarotea edo "zuek, euskal herritarrok, Euskal gizarte zibilak, partidu politikoek eta erakundeek prozesua askatzeko beharrezkoa den giltzak topatzeko bideak eraikitzea". Honek, Madrileko gobernu edozein delarik ere, armagabetze prozesu kontrolatu, ordenatu, adostu eta estatuaren parte-hartzea izango duen prozesu bati atea irekitzea ekarriko du. Foro sozialaren eta gizarte zibilaren papera funtsezkoa da, indar eginez prozesua bideragarria izan dadin ezinbestekoa den ingurugiroa eraiki eta mantentzeko. Egite honetan, bere esanetan, errekonziliazioaren inguruan isilpean gizarte zibilak egindako lana azpimarratzekoa da ere.

Nazioarteko Harremanetarako Taldearen iritziz, "euskal gizarte egungo zatiketa eta ikuspegi kontrajarriak hemen Euskal Herrian, gainditzeko gai bada, ETak bere arma guztiak erabilgaitz" bihurtzeko prozesua gauzatzeko bidea izango du. Eginbide horretan hainbat pauso egin direnaren jakitun direla dio Currinek. Horien berri ematea ez dagokio ICGari. Azpimarratu nahi izan du ordea, Eusko Jaurlaritza, partidu politikoak eta eragile politikoek elkarrekin lan egiteko inplikazioa ezinbestekoa dela. Euskal gizarte erronka horri aurre egiteko gai bada, espainiar estatuak ez du bake prozesuaren amaiera ekarriko duen armagabetzean parte hartzea bestelako aukerarik izango.

## Gernikan iragan zen Gizarte Foroaren ondorioak

### 1.- Gizarte Foroaren sortutako gomendioen berrespena

Gizarte foroak, 2013ko maiatzaren 27an aurkeztu zituen desegite eta armagabetze prozesu bat diseinatzeko, garatzeko eta bururaino eramateko behararen inguruan luzatu zituen gomendioak berresten ditu. Zehazkiago:

- Herritar ororen segurtasuna bermatzea xede, eta bake prozesuaren funtsezko zati bezala, ETArek armak eta egitura militarren desegitearekin bukatuko den prozesu kontrolatu, ordenatu eta adostu bat diseinatzea gomendatzen dugu.
- Zentzuzko denbora-tarte batean gauzatu beharreko prozesu honek hasieratik erakunde erraztaile independenteen esku hartzea eta laguntza izatea gomendatzen dugu, Estatuari eta bere instituzioei zein jendarteari, oro har, egindakoaren segurtasuna emateko.

### 2.- Egindako bidea ta gaurko kontestua

Gizarte Foroak kontutan hartzen ditu:

- Baionako deklarazioa (2014/10/24), Nazioartearen kontrolpean Frantziako gobernu eta ETArek arteko akordioaren beharra azpimarratzen zuena, Frantzian ETA-ko azpiegiturak nola desegin eta desarmatu argituko dituzten baldintza eta egin moldeen definitzeko eta bururaino eramateko.
- Pariseko konferentziaren deklarazioa (2015/06/11) ukituak diren nazio ezberdinen interesen izenean espainiar eta frantziar estatuari Euskal Herriko gatazka konponbidean zinez inplikatzeko eskatzen ziena.
- Eusko Jaularitzak luzatutako (2014/12/21), Armagabetze azkar, bideragarri eta eraginkor baterako prozedura-proposamena, ETArek gizartearen aurreko alde bakarreko keinu batean oinarritua, gizartearen, nazioartearen eta erakundearen babespean.

Gizarte Foroak gogoan hartzen ditu berriki konponketarako ETArek ordezkari gisa izendatua izan den David Plak elkarrizketa batean egin dituen adierazpenak (2015/12/15), zeinean inbentariatzeko eta zigilatze prozesua lehenbailehen burura eramateko borondatea agertzen den. Era berean, armagabetzearen diseinatze partekatuan euskal eragile instituzionalekin, politikoekin eta sozialekin batera lan egiteko borondatea berresten duen ETArek adierazpena ere kontuan hartzen du. Bestalde, Gizarte Foroak, 2014ko uztailaren 19an ETAk "borroka armatuaren jarduerak" deitzen duenaren egitura logistikoaren eta operatiboaren desegitea burutu zuela zioen agiria ere aintzat hartzen du.

### 3.- Ondorioak

Gizarte Foroak, Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen orain arteko lana eskertzen du, eta ETArek armak, munizioak eta lehergaiak zigilatze eta desegite prozesuaren baitako inbentariatzeko eta egiaztatze prozesuarekin jarraitzea eta bururaino eramatera animatzen du. Azken honek, ETArek armategiaren suntsitzearen bidez, lehenbailehen armagabetze osorako agertokian amaitzeko aitzineko urratsa izan behar du.

Gizarte Foroak, suntsitze eta armagabetze prozesu bat ondoko irizpideak betez burutzeko beharra berresten du:

- biztanleriarekiko *segurtasuna*,
- prozesua osoki burutu dadin armen eta lehergaien *kontrola*,
- ahal den heinean *gardentasuna* gizarteari aurrera pausoen berri emanaz,
- behar baino luzeagoa izan ez dadin aurrez adosturiko egutegi baten baitan denboran *iraunkortasuna* duena,
- tartean direnentzako *ingurune segurua*,
- mandatu argi bidez prozesuan sartuak diren eragileen *zilegitasuna*,
- zuzenean ukiturikoen *onespen eta borondatea*,
- prozesuaren garapena neutrala izan dadin *nazioarteko gidaritzza*,
- ukitutako gizarte zibilaren *parte hartzea*.

Hartara, frantses eta espainol gobernuei armen, munizioen eta lehergaien suntsitzeko lana errazteko, edo bederen ez oztopatzeko, deia luzatzen diegu berriz ere.

Gizarte Foroak, armen suntsitze prozesuak NEBean oinarrituko den Gidaritza edo Egiatzatze Batzorde bat (gaur egun NEBaren mandatua armen, munizioen eta lehergaien zigilatze eta baliaezin bihurtzearen egiaztatzeari buruzkoa baita) eta euskal instituzioen, gizarte zibilaren eta Nazioarteko komunitatearen babesa ere behar duela deritzo. Ezinbestekoa da prozesu honek euskal gizarteari, ukituak diren estatuei eta Nazioarteko Komunitateari segurtasuna eman diezaion, horretarako hurrengo ekimenak garatuz:

- Adierazi dugunean oinarriturik, Euskal eta Nafar parlamentuetan Gidaritza edo Egiatzatze Batzordearekin lotura egiteko mekanismoak sortzea egokia litzatekeela deritzogu, armagabetze eta armen suntsitze prozesuaren jarraipen diskretua egiteko asmoz. Ipar Euskal Herriko hautetsiekin ezaugarri berak lituzkeen batzorde bat osatu beharko litzateke.
- Halaber, egokia litzateke ere Euskal eta Nafar Gobernuetik mekanismoak sortzea. Bi lurralde autonomikoen segurtasun eta ordena publikoaren inguruan eskumenak kontuan harturik, egokia litzateke aipatu juridikzioetan armagabetze osoa egiaztatuko luketen tresnak izatea.
- Aurretik aipaturikoen eta gizarte zibil antolatuen arteko elkartzeko eta loturarako markoa sortzea. Gizarte Foro honek eta osatzen duten antolakundeek NEBarekin, Institutioekin eta ikutuak diren aktoreekin lan egiteko prestutasuna agertzen dute.
- Era berean, NEBak Europako eta nazioarteko instantziak armagabetzearen eta armen suntsitzearen inguruan informatu beharko lituzkeela eta hauekin mintzatu beharko lukeela deritzogu, armen, munizioen eta lehergaien suntsitze prozesu bat berri ona baita Europako biztanleria guztiarentzat.

Donostia-San Sebastian,  
2016ko Otsailaren 26a